# Formulaire du Prône
en langue basque.

Conservé naguère dans l'église
d'Arbonne;

Réédité sans aucun changement
et suivi de quelques observations linguistiques sur
les sous-dialectes bas-navarrais et navarro-souletin
de France et d'Espagne

par le prince
L. L. Bonaparte.

Ce petit opuscule, à l'exception du titre qui est en labourdin, ainsi que les deux premières et les quatre dernières pages est écrit en dialecte de Baïgorry, ou bas-navarrais dans toute la force de l'acception du mot. Nous considérons comme bas-navarrais celui des cinq dialectes basques qui, tout en ayant le verbe intransitif en niz, zira, gira, dira etc, ne possède pas le traitement respectueux, soit en zu soit en chu.

Dans une note " Nous regardons le traitement respectueux comme le caractère linguistique par excellence du dialecte Navarro-Souletin auquel on doit rapporter les cinq sous-dialectes suivants. Souletin propre, le Roncalais de la Navarre Espagnole; le Salazarais de la même province. le Cizo Mixain; l'Adourain parlé à Urcuit Lahonce Briscous Mouguerre. Elizaberry St Pierre d'Irube.-

# Pregariac Bayonaco Diocezacotz.

Ioannes d'Olce Bayonaco Iaun Aphezpicua-
-ren manamenduz ordenatuac eta im-
-primaraciac.

Bordelen

G. de la Court Imprimatçaillea Baithan
1651.

---

Pregariac Bayonaco Diocezacotz.

Ioannes d'Olce Bayonaco Iaun Apherzpi-
-cuaren manamenduz ordenatuac, eta im-
primaraciac.

Eliça sainduac, ceina baita guciz ederra
eta graciosa haren campoco edertassuna
eguiten duten, vestimendu sacratuen diu-
-ersitatean (x), Sacramenduen administra-
-tionean, ez bere ceremonia sainduetan:
eta orainc doctrinan ere, ceinez bere umeac
hazten baititu bere ~~Arçaina~~ Arçainen
ahotic Parropietaco Mecen Pregarioetan: *In
veste ista varietas sit scissura non sit.*
Permettitcen daroe Arçainei pensamenduen †

Dans la marge en regard du Latin: Aug. super Psalm. 44.

(x) ertu guciarequin ere nahi hunaleco diuersitateric

2/ Inuentioneen, eta campoco aggradamen duen
diuersitatea: bainen nola maiz baitu batassu-
-na bere fedean, eta haren bilçarreac ezpaitu
fincatcen bere fermutassuna batassunean bai-
-cen, nahi du halaber iducaraci façoin bat
bera Guiristino leialei eman, eta irakhatsi
behar çaizten doctrina, eta instructione neces-
-sarioenetan, eta ez luque desiratcen, hala ahal
balitz, lengoaia bat baicen guciei cerruitçat-
-ceco, eta euangelioco Dorre, bethiere lurraren
gainen handitcen duen hunen, ceruraino
alchatceco. Hartaracotçat Erretor guciec, Vi-
-carioec, eta berce arimen cargu du-
-tenec iracurrico dituzte, eta hitcez hitz erra-
-nen deusic berretu, edo gutitu gabe, Li-
-buru hunetan diren Pregarioac hanc Igande-
-tan bere Parropietaco Mecetan, eta lekhue-
-taco costumaren arauera berce Bestetan,

In Nomine Patris
et Filij, et Spiritus
Sancti. Amen.

Liburian iracurtzu erran beharda gucia.

Guiristinoac egungo egunian bilducirete
lekhu sacratu huntara gure Eliça Ama sain-
-daren authoritatez.

3/ Lehembiciric Meça saindiaren ençutera,
cein erraiten baità Iesu Christo gure Iaunac
curutcian eguin cien Sacrificio odolztatiaren
orhoitçapenian, offrendatcen diociela Aità
Eternalari Iesu Christoren Sacrificio bera, ez
odolztatia curutcian cen beçala: baña
odol issuriric gabe Apheçaren esquiez ogui-
-aren, eta mahats anuaren iduricen azpian.
Eta bi arracoin principalcatic offrendatcen
diogu Aita Saincoari Meçaco Sacrificio Sain-
-du haur. Lehenbicicua dà, hari eçagutça, eta
adoratione handienaren eguiteco, nola gucia
haren ganic dependitcen guiren, eta Iesu
Christo gure Iaunaren heriotce, eta passione
saindiaz, eta berce haren ganic errecibitu
ditugun huntarçun suerte gucier, eta particu-
-larqui aste huntacuez esquerren emaiteco.
Eta bigarrena, hari bere gracia, eta mise-
-ricordiaren humilqui escatceco, eta haren
ganic gure bekhatien barkhamendiaren,
eta berce huntarçun spiritual, eta temporalen
vicien, eta hilencat ardiesteco. Hargatic Eli-
-çac eztaroca bèhinere offrendatcen Iangoi-
-coari Hostia saindu haur, non eztarocan

4/ bere cume leial viciem, eta hilentzat ere
othoitz eguiten, gucioc Sacrificio Saindu hunen
huntarçunetan partale guiten amorecatic.
Eta náhidu ciec ere iunta ditçacien hare-
quin batian cien desirac eta othoitçac, Jan-
-goicoari gucioc elgarrequin othoitz éguiteco,
eta huntarçun gucien esquerrac emaiten
diotçagula errezuiago haren ganic erdi-
-rex ditçagun galdequin behar diotçagun
gauçac.

Bigarrenian bilducirete cien arimen
saluatceco sinhetsi beharditutcien gaucen ikhas-
tera. Eta nola hec baitira Apostoliec eguin, eta
utci daroguten sinhestian, erranenducie enequin
batian.

1 Credo in Deum - - - -

1 Sinhesten dut Iangoico Aita bothere gucia
diena baithan, ceru, eta lurraren Creaçalian.

2 Eta Iesu Christo haren semebakhoitz gure
Iauna baithan.

3 Cein concebitu baitcen Spiritu saindiaren vertu-
tez, sorthu cen Maria Virginaganic.

(6)

# Jangoicoaren Manamendu sainduac dira hoc.

1. Jaungoico bat adora eçaçu,
halaber maita ossoqui.
2 Juramenturic ere eztuçu,
ez ciñic eguinen vanoqui.
3 Igandiac beguiraitzatçu,
Jauna ere cerbitça denotqui.
4 Aita eta Ama ohoraitçatçu
Viciciren luçazqui.
5 Nehor obraz hilen eztuçu,
Ez vrondatez gaixtoqui.
6. Paillardiça eguinen eztuçu
Obraz, ez gogoz likhiqui.
7. Bercerena ebatsico eztuçu,
Ez goratuco inustoqui.
8. Lekhucotassunic eztuçu,
Ez hitza erranen falsuqui.
9 Bertceren Espossic eztuçu
Dittiratuzen saxuqui.
10 Guticia içanen eztuçu
Bercaren onaren guaizqui.

(7) Eliça Ama saindaren Manamendiac dira hoc,
cein beguiratcera obligatiac baicara Iaingoi=
coarenac beçala.

~~Meça~~ MEÇA saindia ençun eçaçu.
Besta, Içandetan denoqui.
Bekhatiac ~~cofessaitçaçu~~ ~~conf~~ cofessaitçaçu
Vrthian behin ossoqui.
Gorphuz saindia errecibiçaçu
Bazcoz berere vmilqui.
Eta Bestac beguiraitçaçu.
Manamenduzcoac saindugui.
Gartha, vigiliac barurritçatçu,
Garicuma ere ossoqui.
Orciralian ianen eztuçu,
Ez eniacoitcian haraqui.
Ezteic eguinen eztuçu,
Dembora estenian cilhequi.
Eta Detchemac pagaitçaçu
Primiciarequin çucenqui.

8) Guehiago iaquin behardugu Iesu Christo gure Saluaçaliac gure arimen saluamenduco ordenatu daranzquitula, eta ~~hei~~ vtci çazpi Sacramendu.

1. Bathaina,
2. Confirmacionia,
3. Gorputz Saindia,
4. Penitencia,
5. Anuncina,
6. Ordena,
7. Ezconça.

Sacramendu hoc vnsa errecibitcen ditugun ordian, gure Saluaçaliac issurtcen darozquigu gure arimetara bere gracia saindiac, eta gure gatic curutcian Issuricien odol preciatiaren merechimendiac. Hargatic gomendaitcen darauciet hec vnsa, eta ardura errecibitciaz.

<u>Laurgarrenian</u> bildurciztete huna Iangoicoari cien othoitcen humilqui eguitera, lehenic placer dien bere ohoria, eta gloria auançaraci, eta Eliça catholica Saindia bere odol preciatiaz chahutu diena, conserua-tu, alfchatu, berretu, eta lekhu gucietara hedatu, eta

9) mundu gucia baquian mantenatu, infidelac conuertitu, heretico, eta berce haren obedient eztiren guciac bere gana deithatu, eta Fede eguiazcoaren batarçunian berriz iuntatu, eta eçarri

Halaber olhoi eguinen daracogu (darocagu?) gure Iangoicoari Aita Sainduagatic, Cardinalen Collegio Sacratuagatic, Arz-Apezpicu, eta Apezpicu guciegatic, eta particularqui gure Iaun Apezpiquiagatic, Erretor, eta berce arima cargu duten guciegatic placer daracon eman bere eguinbiden vnsa eguiteco, eta vicitce hunaren exempliaz, eta doctrina saindiaz bere cargutan dituzten arimac mundu huntan ~~vnsa~~ vnsa arguituric, eta instruituric, heguin batian ceruco gloriaren erdiresteco gracia.

Guehiago olhoi eguinen daracogu Iangoicoari gure Erregue, eta Erreguinagatic, eta Erresuma huna gouernatcen ~~heien~~ heien Maiestatiac consellatcen, eta laguncen dituztenegatic - (Patronic balinbada erran behardu vlia, icendaturic Elica saindu huntaco Iauna Patronagatic) Cargundun guciegatic, eta particularqui herri huntacuegatic, placer ditien bere Spiritu Saindiaz aintatu, eta fauoretu, eta

10) eman gucier gracia Erresumaco eguitecoen vnsa gouernatceco, eta bere carguier cein bere lekhuetan chuchenqui, eta viderqui descargatceco, moien harcar vici guitecen baque hunian, eta eguiazco Fede Catholicaren batarçunian.

Othoit eguinen daracogu halaber gure Jaingoicoari, bekhatu mortaletan vici direnengaticbere Spiritu Saindiaz argui ditçan, eta bekhatutic guitaturic, eman-diecaçan hunera conuertitceco gracia: eta guehiago espirituen tribulationetan, eta gorputceco erkharçunetan direnengatic, placer ditien gaitz gucietaric libratu: eta itchassoco periletan dabilçanengatic, nahi ditien peril gucietaric beiraturic, saluamenduco portura guidatu.

Eguinen diogu orano othoitz gure Jangoicoari, placer darauzquigun lurreco fruitac conseruatu, hetaric behar duguna emaiten daracogula, hobequiago eça-gut, adora cerbitça, eta lauda deçaguncat, eta esquerrac maizago, eta ardurago errenda.

Eta nola gure Jangoicoari galdeguin behar diotçagun gauçac, Pater nosterrian baitira, cein gure Saluat-çaliac berac eguin, eta erakhatsi baitarauccu, erra-nen du içe eneguin betian denoqui

(11) Pater noster qui es in coelis etc...

Gure Aita ceruetan çaudena etc..

Eta Iangoicoa gania, galdeguiten daratçogun gauçac, hobequiago erdiresteco gatic, emanen daraçogu arartean Virgina Maria, ceñen alderat içanen baitucie bethi=ere deuotione particularbat, erraiten duçiela enequin=tian.